




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS, GURE
ADISKIDEA**

B SAIOA

AITA ETA AMENTZAT PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**JESUS, GURE
ADISKIDEA
(MK 10, 14)**

1. Helburua

- Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen bizitzaren eta bere mezuaren oinarrizko uneak ezagutu eta kontatu.
- HITZA ETA OTOITZA ALDERDIA. 1. helburua, oinarrizko otoitzak ikasi.
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, katekesiko taldea, topagunea.
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, Jesusen jarraitzaile izaten ikasi.

3. Saioak

B saioa aita eta amentzat parrokian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

B SAIOA AITA ETA AMENTZAT PARROKIAN



Motibazioa

- Familiei Jesus nor den ezagutzera eman.



Azpimarrak

- Jesus eta bere mezuaren inguruko jakin-mina piztu.
- Jesusek dei egiten die ezagutu eta bere atzetik jarrai dezaten.



Idea nagusiak

- **Mateo 16, 13-16** pasartea landuko dugu helduekin; Jesusek galdera egiten die ikasleei: **Eta zuek, nor naizela diozue?**
- **Aita eta amei Jesus nor den ezagutzera eman.** Elkarriketaren bidez eta esperientziak batera jarritz, Jesus ezagutzeko eta bere atzetik jarraitzeko nahia piztu, seme-alabekin bezala.



Ezinbesteko lagungarriak

- Jesusen irudia eta **“Jesus, gure adiskidea”** izenburua (V. eranskina).
- Koloretako Post-itak eta boligrafoa.
- Osagarriak: **“Jesusez dakiguna”**, eranskina katekista, eragile, aita eta amentzat (kopia bana partaide guztiei).
- Mateo 16, 13-16 ebanjelioko pasartea eta galderak.
- Kartela Jesusen irudiarekin eta **‘Nor da Jesus zuretzat?’** galderarekin.
- Otoitza.



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Gelaren erdialdean (ondo ikusteko moduan), Jesusen posterra jarriko dugu (1. eranskina, Fanoren irudia: Jesus haurrak besarkatuz), izenburua idatzita: “Jesus, gure adiskidea”. Saioa lau unetan banatuko dugu.

1. Unea. Agurra eta aurkezpena (5 min.).
2. Unea. Gaiaren azalpena: “JESUS... DA” (20 min.).
3. Unea. “Nor da Jesus?” dinamika eta abestia (15 min.).
4. Unea. Egindakoa jaso eta laburtu: kartela eta otoitza (10 min.).



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak harrera egingo die partaideei; agurra eta ongi etorria.



1. Urratsa. Saioaren helburua, Nazareteko Jesus nor den jakitea dela azalduko dugu.



2. Urratsa. Gelan jarrita dagoen kartelean arreta jartzeko esango diegu (Jesusen irudia eta “Jesus, gure adiskidea” esaldia jasotzen dituen kartela. 1. eranskina).



3. Urratsa. Nor da Jesus? Zer dakigu Jesusez?

- Saioaren eragileak, post-it bat eta boligrafoa banatuko die partaideei.
- Galdera egingo die: Nor da Jesus zuretzat? Zer dakizu Jesusez?
- Ondoren, idatz dezatela post-it horretan Jesusez dakitena (5 min.).
- Gero, laguntzaileak idatzitako gauzetatik zerbait irakurtzeko eskatuko die. Jendeak parte har dezala eta elkarriketan jardun.



4. Urratsa. Amaitzeko, partaide bakoitzak kartelean, Jesusen irudiaren inguruan itsatsiko du post-ita.



Bigarren unea. Gaiaren azalpena



5. urratsa. "Jesusez dakiguna", katekista, eragile, aita eta amentzako lagungarriez baliatuz, laguntzaileak Jesus nor zen azalduko du labur-labur.

- Datu biografikoak, non jaio zen, nortzuk ziren bere gurasoak, nola bizi zuen haurtzaroa, nortzuk diren bere adiskideak, helduaroan zertan jardun zuen...
- Ez irakurri agiria, azalpen erraz eta erakargarria eman, gero banatuko zaie eta agiria etxera eraman dezaten. Hurrengo bilerara arte hilabete dutela eta aldi horretan agiria irakurtzea komeni dela esango zaie.



Hirugarren unea. 'Nor da Jesus?' dinamika eta abestia (15 min.)



6. Urratsa. Jesus ezagutzeko, ezinbestekoa da galdera honi erantzutea. 'Nor da Jesus?'. Kontua ez da Jesusi buruzko erantzun teorikoetan geratzea, geure buruari Jesus nor den galdetzea baizik eta, bihotzez emandako erantzunaren arabera, hari baiezkoa emateko eta haren atzetik jarraitzeko gogoia izatea.



7. Urratsa. **Mt 16, 13-16** pasartea irakurriko dugu. Jesusek zera galdetzen die ikasleei: **Eta zuek, nor naizela diozue?** Elkarrizketan jardungo dugu galdera hauen haritik:

- Zer dio pasarteak? Zer gertatzen da?
- Zer gertatu zait deigarrien? (nabarmendu nahi duten zerbait)



8. Urratsa. "Jesus nos enseña" abestia entzungo dugu. Seme-alabek entzun dute dagoeneko Jesusen irakaspén eta mezua jaso nahi duen abesti hau.

**Klikatu
irudiaren
gainean bideoa
ikusteko**



Laugarren unea. Egindakoa jaso eta laburtu



9. Urratsa. Laguntzaileak Jesusen marrazkia eta 'nor da Jesus zuretzat?' galdera jasotzen dituen txartel bana emango die partaideei. Atzealdean idatzi ahal izango du bakoitzak bere erantzuna (VI. Eranskina).

- Musika gozoa jarri eta pare bat minutu emango diegu galderari erantzuteko.
- Idatzitakoa ez da batera jarriko; etxera eraman eta atondu duten otoitzerako txokoan jar dezatela. Aurrerago, beste saio batean, galdera beretik abiatuko gara eta sakontzen jarraituko dugu.



10. urratsa. Otoitza.

- Kandela piztu, Jesus gure artean dela irudikatzen.
- Isilunea egin, geure burua prestatzeko.
- Jesus agurtu, Gurutzearen seinalea eginez.
- Eta elkarrekin, otoitz egin:

"Jesus, Zu beti zaude gurekin"

Familian, parrokan, katekistekin,
ikastetxean eta beste hainbat lekutan,
Zu ezagutzeko eta kristau bezala bizitzen ikasteko
aukera dugu.

Eskerrik asko, Jesus!

V. eranskina



VI. eranskina



NOR DA JESUS ZURETZAT?



NOR DA JESUS ZURETZAT?



NOR DA JESUS ZURETZAT?